



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/09/25

Bizkaiko Foru Aldundiak 450.000 euro bideratuko ditu Euskalduna Zubiko beharrak egiteko

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak gaur goizean adierazo dauenez, datorren hastean hiru motako beharrak hasiko dira Euskalduna Zubian. Jarduketa horreei ekin ahal izateko, Foru Aldundiak 450.000 euro bideratzea aurreikusi dau; behar horreek gauzatzeko epealdia hiru hilebete eta erdi eta lau hilebete artekoa izango dala be esan dau.

Aldundiko arduradunak, Bilboko Udalagaz koordinauta, Euskalduna Zubiagaz eta joan dan bagilaren 28an izandako gertakariakaz erlazionauta Aldundiak aurrera eroango dauen jarduketa bakotxa zehaztu dau. Zubiko oinezkoen igarobideak itxita jarraitzen dauen arren, Pradalesek adierazo dauenez, txosten teknikoak “ez gagozala ezelango asentamendu arazoren aurrean” dinola esan dau. Hori dala eta, “egoerea egonkortuta” dago.

Zehaztu dauenez, Euskalduna Zubia parte bik osatzen dabe –zubiak eta bertara sartzeko arrapalak– eta biak txapa batek estaldutako hegal formako estalkiaren bitartez dagoz lotuta. Hori dala eta, egun haretan gertautakoa “arazo estetikoak” izan zan, eragina txapak jaso eban eta. Arazo hori, txostenak azaltzen dauenez, “denporaren iragana dala eta gertau ohi diran mobimendu termikoek eta mekanikoek” sortzen dabe.

Arazo estetikoak eta asentamenduen prozesuaren amaierak kontuan izanda, Foru Aldundiak izaera “osagarria eta prebentzinozkoa” daukien hiru jarduketa gauzatuak ditu zubian. Beste ezer baino lehen, pilotatzea Deustuko estribura sartzeko arrapalaren laguntzako hormaren gunean; bigarrena, arrapalako eta zubiko markesinen egokitzea eta konponketea; eta hirugarrena, arrapala gunearen eta estrukturaren artean dagozan junturen konponketea.

Jesus Isasi Talde Popularreko ordezkariak, Nuria Atienza Podemos Bizkaia tadekoak eta Joseba Gezuraga EH Bildukoak, “arazoa estetikoak baino ez bada” ez dabela pilotatzea egin beharra ulertzen adierazo dabe. Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak gogoratuazo dauenez, Euskalduna Zubia oinarrizten dan lurzorua, “padurea izan zan, eta bere asentamendua nahiko konplexua da”. Hori dala eta, ezelango jarduketarik egin aurretik ahal diran datu guztiak batzeko eskaria egin dau.

Laburrago, Josu Montalban batzordekide sozialistak eskertu egin ditu agerraldi eskariaren azalpenean orain arte ezagutzen dan informazio guztia laburbildu dauen Jesus Isasi ordezkari popularraren eta Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuaren azalpenak. Mikel Bagan batzordekide jeltzaleak Pradalesek azaldutako informazio guztia berretsi dau, eta Foru Aldundiak, Bilboko Udalagaz lankidetzan, bagilaren 28tik, egin dauen “behar bikaina” balorau dau.

TURISMOA

Saioari amaierea emoteko, Imanol Pradalesek Talde Mistoak turismoaren ganean egin dituan agerraldi eskari biri erantzun deutse. Lehenengoan, Bizkaira erakarri daiteken balizko turismoa eta bisitarien ikuspegia ezagutzeko Aldundiak agindutako marketin planaren ondorioak zehaztu ditu, holan “turismoaren sustapenerako kanpainen garapena bultzatzeko”.

Erresuma Batuan, Italian, Alemanian, Estatu Batuetan, Herbehereetan, Suedian eta Frantziako eta Espainiako estadietan web galdetegi bat egin ostean, azterlanak baieztu dauenez, batez besteko turistaren soslaia “familiagaz edo bikoteagaz, urtean behin, kostako edo kulturako turismoaren bila bidaiatzen dauen eta unibersidade mailako ikasketak dituen pertsonarena” da. Batez besteko gastua 200 eurotik gorakoa da pertsona bakoitzeko “jatorrizko herrialdearen arabera dan arren”.

Horrez gain, Pradalesek azaldu dauenez, Bilbo Bizkaia baino gehiago ezagutzen da; horri jagokonez, txostenak erakusten dauenez, alkarrizketea jaso daben pertsonen %40 ez da kontzeptu biak lotzeko gai.

Aurreikusitako jarduketan artean, Foru Diputatuak marketin digitaleko sei kanpaina jarriko dirala martxan azpimarratu dau. Kanpainak oraindino hasi ez diran arren, Bizkaiko turismoak urte honetan izan dauen hazkundera jarri dau balioan Pradalesek. Nabarmendu dauenez, Lurraldeak nazinoarteko %6,6 turista gehiago jaso ditu eta, ganera, bidaiak bakoitzeko gau bi igarotearen batez bestekora heltzea lortu dau.

Bigarren puntuan, Imanol Pradalesek Itsasontzietako turismoa finkatzeko aurreikusitako jarduketak aitatu ditu. Itsasontzietako turismoan aditua dan lan talde batek diseinatu dauen strategiaren fruitu moduan, aurton 37 gurutzaldik eskala egin dabe Bizkaian, hau da, orain urtebete baino %9 gehiagok. Estrategia horren helburu nagusiak “Bizkaia Atlantikoko ardatzerako sarbide bilakatzea” eta “Bilboko portua Europa mailan erreferente izatea” da.

Sailak 2020ra arte aurreikusten dituan jarduketan artean, beste ezer baino lehen, itsasontzian bertan emoten dan jomugaren ganeko informazioa eta gurutzaldien terminaleko harrerea hobetzea dago. Horretarako, adierazi dabenez, bulego bat jarri dabe kaian bertan. Bigarren, hezkuntza egitasmo irekia eroan gura da aurrera. Eta, hirugarren, “gurutzaldien arloko Europa mailako ekitaldi handi baterako” bere hautagaitza aurkeztea aurreikusten dau Sailak.

NOTA DE PRENSA

25/09/18

La Diputación Foral de Bizkaia destinará 450.000 euros a acometer obras en el Puente Euskalduna

El Diputado de Desarrollo Económico Territorial, Imanol Pradales, ha manifestado esta mañana que la semana que viene darán comienzo tres tipos de obras en el Puente de Euskalduna. Para acometer estas actuaciones, la Diputación Foral tiene previsto destinar 450.000 euros; asimismo, su plazo de ejecución será entre tres meses y medio y cuatro meses.

El responsable foral ha detallado, a petición del Grupo Popular, cada una de las actuaciones que la Diputación llevó a cabo en coordinación el Ayuntamiento de Bilbao en relación al Puente Euskalduna y los hechos acaecidos el 28 de junio. A pesar de que el paso peatonal del puente sigue cortado, Pradales ha manifestado que el informe técnico asegura que “no estamos ante ningún problema de asentamientos” y que por lo tanto se trata de una “situación estabilizada”.

Según ha detallado, el Puente Euskalduna está formado por dos partes – puente y rampa de acceso- y viéndose ambas conectadas por una cubierta en voladizo cubierta por una chapa. Por lo tanto, lo ocurrido aquel día fue un “problema de carácter estético”, al verse afectada dicha chapa. Este problema, tal y como explica el informe, se debe a “un conjunto de movimientos térmicos y mecánicos que tienden a producirse por el paso del tiempo”.

Dada esta problemática estética y al fin del proceso de asentamientos, la Diputación Foral llevará a cabo tres actuaciones de carácter “complementario y preventivo” en el puente. En primer lugar, un pilotaje en la zona del muro de acompañamiento de la rampa de acceso al estribo de Deusto; en segundo lugar, un acondicionamiento y reparación de las marquesinas de la zona de la rampa y el puente; y en tercer lugar, una reparación de las juntas que se encuentran entre la zona de rampa y la estructura.

Tanto el representante del Grupo Popular, Jesús Isasi, como la de Podemos Bizkaia, Nuria Atienza, y el de EH Bildu, Joseba Gezuraga, han asegurado no entender la necesidad de realizar un pilotaje “siendo únicamente un problema estético”. El portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha recordado que el suelo sobre el que se edifica el Puente Euskalduna fue “un suelo que fue marisma y que tiene un asentamiento complejo”, por lo que ha instado a recoger todos los datos posibles antes de acometer ninguna actuación.

Más breve, el apoderado socialista Josu Montalban ha agradecido las explicaciones tanto al representante popular Jesus Isasi, que en la exposición de la petición de comparecencia ha resumido toda la información conocida hasta ahora, como al Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial. El apoderado nacionalista, Mikel Bagan, ha reiterado toda la información expuesta por Pradales, y ha valorado la “diligencia” con la que la Diputación Foral, en colaboración con el Ayuntamiento de Bilbao, han estado actuando desde el 28 de junio.

TURISMO

Imanol Pradales ha cerrado la sesión respondiendo a dos solicitudes de comparecencia del Grupo Mixto acerca del turismo. En la primera, el Diputado Foral ha desgranado las conclusiones obtenidas del plan de marketing encargado por la Diputación para conocer el turismo potencial que puede atraerse hacia Bizkaia, así como la visión de las personas visitantes, y de esa manera “favorecer el desarrollo de las campañas de promoción turística”.

Tras realizar un cuestionario web en Reino Unido, Italia, Alemania, Estados Unidos, Países Bajos, Suecia, y Estado francés y español, el estudio ha determinado que el perfil de turista medio es “una persona universitaria que viaja con su familia o su pareja una vez al año en busca de turismo de costa o cultural”. El gasto medio es superior a 200 euros por persona, “aunque depende del país de origen”.

Asimismo, Pradales ha explicado que el reconocimiento de Bilbao es mayor al de Bizkaia; en este sentido el informe determina que un 40% de las personas entrevistadas no son capaces de vincular ambos conceptos.

Entre las actuaciones previstas, el Diputado Foral ha destacado el lanzamiento de seis campañas de marketing digital. A pesar de no haber comenzado con la campaña, Pradales ha puesto en valor el incremento turístico que ha tenido Bizkaia en lo que va de año. Tal y como ha destacado, el Territorio ha registrado un aumento del 6,6% respecto al número de turistas internacionales, logrando además, alcanzar la media de dos pernoctaciones por viaje.

En un segundo punto Imanol Pradales se ha referido a las actuaciones que se están llevando a cabo para afianzar el turismo de cruceros. Fruto de una estrategia diseñada por un grupo de trabajo experto en materia de turismo de cruceros, en lo que va de año se ha registrado un total de 37 escalas de cruceros, lo que supone un 9% más que hace un año. Esta estrategia tiene como principales objetivos “convertir Bizkaia en puerta de entrada al eje atlántico” y que “el Puerto de Bilbao sea un puerto referente a nivel europeo”.

Entre las actuaciones que prevé el Departamento hasta 2020 está, en primer lugar, la de mejorar la información de destino a bordo y del recibimiento en la terminal de cruceros. Para ello, aseguran que se ha puesto en marcha una oficina a pie de muelle. En segundo lugar, desarrollar un proyecto educacional abierto. Y en tercer lugar, el Departamento prevé presentar su candidatura a “un gran evento europeo en el ámbito de los cruceros”.